



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA OHARRA

Bizkaiko Garraio Partzuergoak 4 urtetik 7 urtera luzatu du Barik txartel guztien iraungitze-epea

- **Dagoeneko erabiltzen ari diren txartelen baliozkotasun epea luzatu ahal izango da, erabiltzaileentzako kosturik gabe, Metro Bilbaoko geltokietan, txartelak saltzeko eta kargatzeko makina automatikoetan, uztailaren 13tik hasita (astelehena).**
- **Egun horretatik aurrera erosten diren txartel berriek 7 urteko iraungitze-epea izango dute.**

Bilbo, 2015eko uztailaren 1a.

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) erabaki du iraungitze-epea 3 urtez luzatzea Barik txartel guztiei, bai orain zirkulazioan daudenei bai uztailaren 13tik aurrera (astelehena) erosten direnei.

BGPk egindako azterketa teknikoetan egiaztatu denez, Barik txartelak daukan txip integratua, aitzindaria eta berritzailea inguruneko beste operadore batzuek erabiltzen dutenaren aldean, lau urte igaro eta gero ezin hobeto funtzionatzen ari da. Horrek erabilera epea luzatzeko erabakia hartzeko aukera eman dio erakundeari.

Orain erabiltzen ari diren txartelen iraungitze-epea luzatzeko, erabiltzaileek nahikoa izango dute Metro Bilbaoko edozein geltokira joan eta txartelak saldu eta kargatzeko makina automatiko batean epea luzatzea. Txartela erabiltzeko azken eguna modu automatikoan aldatuko da, erabiltzailearentzako kosturik gabe. Egin beharreko tramite hori edonoiz egin daiteke, uztailaren 13tik aurrera, baina betiere Barik txartela bere oraingo iraungitze-datara heldu baino lehen.

Horrela, Barik txartel berri guztiek 7 urteko baliozkotasun epea izango dute, eta orain erabiltzen ari direnen egungo epea 3 urtez luzatu ahal izango da dohainik. Hau da, egungo 4 urteko epetik 7 urteko epera igaroko da.

Aldaketa horren ondorioz, lehenengo txartelak, datorren irailetik aurrera iraungitzeekoak zirenak, baliozkoak izango dira 2018ko irailera arte, behin erabiltzaileak bere txartela eguneratu eta gero. Tramite erraz hori uztailaren 13tik aurrera –eta txartela iraungi aurretik– egin ahal izango da Metro Bilbaoko edozein geltokitan. Txartelak saldu eta kargatzeko makinan Barik txartela sartuta, besterik gabe, sistemak garraio titulu horren iraungitze-epea luzatuko du, erabiltzaileentzako kostu erantsirik gabe.